

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai otsailaren 16an

Ikurrak eta objektuak.
Guggenheim Bildumako Pop Artea

Babeslea

bbk 



Artea eta hezkuntza artistikoa sustatzeko bultzatzen ditugun programen baitan, BBKk atseginez aurkezten du *Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea* erakusketari emandako babesletza. Erakusketa horri esker, Bilbon egongo dira ikusgai Solomon R. Guggenheim Museumen funtsetako Pop artearen lan gailenetako batzuk. Mugimendu hori 1950eko hamarkadaren amaieran sortu zen Erresuma Batuan, eta, ondoren, 1960ko hamarkadaren hasieran, haren eragina AEBra hedatu zen. Pop arteak tradizioari desafio egin zion eta, aldi berean, apurtu egin zuen keinuaren eta subjektibotasunaren nagusitasuna (une hartan Estatu Batuetako eszena artistikoan gailentzen zen espresionismo abstraktuaren berezko ezaugarriak, alegia).

Erakusketaren ibilbideak aukera paregabea eskaintzen du Guggenheim Bildumako pieza adierazgarrienetako batzuk esploratzeko eta, kontsumismoa eta oparotasun ekonomikoaren sentazioa nagusi zituen gizartean murgilduta, pop artistek erabili zituzten era askotako estrategiak miresteko. Izan ere, artista haiek publizitatearen, komiki-munduaren, masa-hedabideen edo zinemaren ikonografia eta baliabideak erabili zituzten beren sortze-lanetan, eta horregatik dute sarritan akabera hotz eta inbertsonala lan horiek.

Pop artearen garapenak hainbat berrikuntza ekarri zituen, eta berrikuntza horiek eragin handia izan zuten ikuspegiari, gaietan, formetan, iturrietan eta teknikan. Izan ere, eguneroko errealtate modernoa ulertzeko begirada berri bat eratu zuten, omenaldiaren eta lotsagabekeriaren erdibidekoa. Mugimendu honetako sortzaile aitzindari eta enblematikoen lanak —Roy Lichtenstein, Claes Oldenburg, James Rosenquist eta Andy Warholenak, besteak beste— pop estiloaren arrasto ukazina duten gaur egungo lan-sorta txiki baten ondoan jarriko dira erakusgai oraingo honetan.

Laburbilduz, erakusketak New Yorkeko museoaren artelan-sorta iradokitzaile bat biltzen du, denak ere Pop artea izenpean sailkatuak edo mugimendu horrekin bat datozenak. Izan ere, mugimenduaren eraginak gainditu egin ditu espazioa eta denbora, gaurdaino iritsi arte, eta agerian uzten du umoreak, kultura herrikoari egindako keinuek eta eguneroko bizitzako estetika propioak artean izan dezaketen garrantzia. Intentzioak, jolasak eta ironiak bat egiten dute *Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea* erakusketan. Guggenheim Bilbao Museoaren proposamen berri eta suspergarri honetaz gozatuko duzuela espero dugu.

Xabier Sagredo
BBKren Presidentea

Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea

- Datak: 2024ko otsailaren 16tik irailaren 15era
 - Komisarioak: Lauren Hinkson eta Joan Young, arte-arduradunak, Solomon R Guggenheim Museum
 - Babeslea: BBK
-
- Pop artearen hoztasunak eta kutsu inbertsonalak zuzenean eraso zituen “goi-mailako artearen” tradizioak, zeinak ezaugarritzat baitzituen keinuaren espresioa eta pintzelkada askea, aurreko belaunaldiko espresionismo abstraktuko artistek defendatutako alderdiak, hain zuzen.
 - Erakusketa honetako artelanak burutsuak eta ironikoak dira sarritan, eta kultura herrikoiaren gorapamentzat har daitezke, baina baita haren kontrako kritika garrantzatu ere.
 - Solomon R. Guggenheim Museumez hasiera-hasieratik hartu zuen Pop artearekiko konpromisoa, mugimenduaren baliozkotze instituzionala adierazi zuen 1963ko *Six Painters and the Object* erakusketa antolatu zuenetik hasia.
 - Erakusketak biltzen dituen lanetako bat Claes Oldenburg eta Coosje van Bruggen *Luma-bola biguna* monumentala da; haren berealdiko tamainak umorez txikiagotzen du museo-esparrua eta, era berean, azpimarratu egiten du museoak duen eginkizuna, kulturaren eta hezkuntzaren egoitza gisa ez ezik, aisiarako eta entretenimendurako leku gisa ere.

Guggenheim Bilbao Museoa *Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea* aurkezten du. BBK babesle duen erakusketa honek agerian jartzen du Guggenheim Fundazioak mugimendu artistiko horrekiko duen konpromiso irmoa: Pop arteko sortzailerik adierazgarrienen funtsezko 40 artelanez osatua dago, eta mugimenduaren legatua zabaltzen duten proposamen garaikideen atal bat ere badu.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Estatu Batuetako gizartean nagusi ziren bizitasun ekonomikoak eta kontsumismo hasiberriak bultzatuta, Roy Lichtenstein, Claes Oldenburg, James Rosenquist eta Andy Warhol bezalako artistek kultura herrikoi edo popularrak —hitz horrexetatik dator mugimenduaren izena— berezkoa duen lengoia bisuala aztertu zuten, eta inspirazio-iturri gisa erabili zituzten iragarkiak, aldizkari merkeak, egunkariak, publizitate-hesiak, filmak, komikiak, baita erakusleihoak ere. Pop artearen hoztasunak eta kutsu inbertsonalak zuzenean eraso zituen “goi-mailako artearen” tradizioak, zeinak ezaugarritzat baitzituen keinuaren espresioa eta pintzelkada askea, aurreko belaunaldiko espresionismo abstraktuko artistek —esaterako, Jackson Pollockek eta Willem de Kooningek— defendatutako alderdiak, alegia. Erakusketa honetako artelanei umorea,

asmamena eta ironia darie sarritan, eta kultura herrikoiaren goraiamentzat har daitezke, baina baita haren kontrako kritika garraztat ere.

Pop mugimendua 1950eko hamarkadaren bukaeran sortu zen Ingalaterran, eta AEBn errotu zen zenbait kritikariren babesa jaso ondoren. Haietako bat Lawrence Alloway izan zen, idazle eta komisario britainiarra; 1958an hark erabili zuen lehen aldiz “Pop art” terminoa. Hala, Solomon R. Guggenheim Museumek Pop artearekin hartutako konpromisoa mugimenduaren hastapenetatik dator. Zehazki, 1963ko *Six Painters and the Object* erakusketak, bi urte lehenago Museoarentzat lanean hasia zen Allowayk antolatuak, mugimenduaren balioespen instituzionala ekarri zuen garrantzi handiko une batean. Hasieran, erakusketa historiko hari *Signs and Objects* deitzea pentsatu zuen Allowayk, eta esapide horixe aukeratu da, hain zuzen ere, Guggenheim bildumetako piezen erakusketa hau izendatzeko.

Hurrengo hamarkadetan, Pop artearen aitzindarietako askori berariaz eskainitako azterlan eta erakusketa antologiko garrantzitsuak antolatzen jarraitu zuen New Yorkeko museoak —artista haien artean zeuden Chryssa (1961), Jim Dine (1999), Richard Hamilton (1963), Roy Lichtenstein (1969 eta 1994), Claes Oldenburg (1995), Robert Rauschenberg (1998) eta James Rosenquist (2003)— eta, bitartean, mugimenduko lan ikonikoen bilduma eratzen jarraitu zuen. Obra horien sorta bat da honako aurkezpen honetan ikusgai jarritakoa.

Ikurrak

Pop artistek “goi-mailako artean” gutxietsitako gaiei heldu zieten merkataritza-arloko eta publizitateko lengoia bisuala baliatuz. Adierazpide popular haiek beren lanetan integratu izana kultura iparramerikarraren afirmazio sutsutzat interpretatu izan da, baina baita “behe-mailakotzat” jotzen denarekiko uztarketa burugabetzat ere. Sarritan Richard Hamilton hartu izan da Pop artearen sortzailtzat: *Independent Group* delakoaren kidea izan zen Hamilton, Erresuma Batuan, 1950eko hamarkadaren lehen erdian, arte bisuala sortzeko plataforma gisa teknologia berriak eta masen kultura defendatu zituen mugimenduko kidea. Hamiltonek New Yorkeko Guggenheim Museoaren beira-zuntzeko erliebe-sail bat egin zuen eraikinaren postal batean oinarrituta, eta sail horretako zenbait aletan dagoeneko ageri dira gerora pop artisten bereizgarri izan ziren errepikapena eta irudien erreprodukzioa.

Roy Lichtensteinek inprimatze-bilbea osatzen duten puntuak simulatuz margotu zituen bere paisaiak, komikietan eta egunkarietan erabilitako teknika komertzialei erreferentzia zuzena eginez; horrela “goi-mailako artea” sortu zuen eguneroko bizitza inspirazio-iturri zuen komunikazio bisual forma popular batean oinarrituta. Bestetik, James Rosenquistek, publizitate-hesiak margotzen jardundakoa izanik, neurri handiko iragarkigintzatik ateratako teknika eta motibo ugari sartu zituen bere artelanetan. Iragarkietatik ateratako irudien zatiak ebaki eta berriro konbinatzen zituen, pintura komertziala erabiltzen zuen, eta tamaina handiko formatuetan lan egiten zuen.

Chryssa artista, jatorriz greziarra, 1950eko hamarkadaren erdialdean iritsi zen New Yorkera, eta Times Squareko errotulu argidunak inspirazio-iturri hartzen hasi zen; izan ere, modernitatearen eredutzat eta Estatu

Batuetako kulturaren baitan arrunkeriak eta poetikotasunak duten teilakatzearen paradigmazat jotzen zituen errotulu haiek. Eta beste pop artista batzuek bezala, Andy Warholek egunkarietako, publizitate-fotogrametako eta iragarkietako irudi inprimatuak erabili zituen bere sorkuntzetan; geroago, berriz, masa-erproduktzioako serigrafia teknika hartu zuen baliabidetzat.

1960ko hamarkadaz geroztik, Pop mugimenduak garrantzitsua izaten jarraitu du belaunaldiz belaunaldi. Hala, Josephine Meckseper artista garaikideak desafio egiten die bai irudi ezagunen interpretazio konbentzionaleri, bai haiei esanahia ematen dieten hedapen- eta erakusketa-sistemei ere. Meckseperrek erakusleihen komertzialen itxura izan ohi duten eskulturak egiten ditu objektu artistikoak eta kontsumoko gaiak nahastuta; hala, kontsumismoak ekoizpen kulturean duen eraginarekiko korrelazio zuzena ezartzen du, eta, sarritan, kritika-kutsua ematen die bestela erabat arruntak diren produktu eta elementu bisualei. Douglas Gordon, aldiz, Warholen autorretratuak imitatuz sartu da Pop artearen historian; areto honetan ikusgai jarritako lanaren kasuan, Warholen *Inperioa* (*Empire*, 1965) filmaren jatorrizko metrajea bereganatu —Berlinen emandako proiektio batean grabatuta— eta bere artelan garaikide propio gisa birdefinitu du. Gordonek aitortu egiten du Warholen eragin nabarmena, baita hark ospearen eta *fanen* kulturarekiko zuen kezka obsesiboa ere. Maurizio Cattelan ikono ezagunekin ere aritzen da, Walt Disneyren 1940ko animaziozko film klasikoko Pinotxo pertsonaia taula tragiko batean ipiniz.

Objektuak

Lawrence Allowayren arabera, 1960ko hamarkadako pop mugimenduko artisten inspirazio-iturria kultura herrikoia izan zen, edo “hiriaren komunikazio-sarea eta ingurune fisikoa”, eta halako ironia-kutsu bat darie haien planteamenduei eta artelanei. Pop artistak dadaismoaren historian ere oinarritu ziren, mugimendu hari lotutako praktika anitz eta askotarikoetan. Pop arteak bezala, dadaismoak ere asmo satirikoz baliatu zituen eguneroko bizitzako objektuak eta jarduerak, kritika sozial eta estetikorako tresnatzat hartuta.

AEBko Pop artearen aitzindari izan zen Robert Rauschenbergek objektu aurkituak eta bestelako materialak —adibidez, kartoia, plastikoa eta txatarra— txertatzen zituen bere ensanblaje eta margolanetan, baita irudi arruntak ere, transferentzia-teknika edo serigrafia-prozesu komertzialak erabilita adieraziak. 1960ko hamarkadaren hasieran, berriz, Jim Dine eta Claes Oldenburg bezalako artistak biltzen zituen sortzaile-talde batek performancearen eremura eraman zituen espresionismo abstraktuaren pinturak berezko zituen keinua eta subjektibotasuna, *happening* deitutako ekintzen bidez eraman ere. Dantza, arte plastikoa, musika eta poesia elkartzen zituzten ekitaldi haietan edozer sar zitekeen, izan gezurrezko afariak eta zeremonia bitxiak, izan objektu zentzugabeak eskaintzen zituzten erakusleihen faltsuak, masa-kontsumoan murgildutako gizartea kritikatzeko tresna gisa erabiliak. Geroago, Oldenburgek dimentsio handiko eskulturak eta proiektuak sortu zituen (erakusketako beste areto batean dago ikusgai haien adibide bat) 1977az geroztik emazte izan zuen Coosje van Bruggen artistarekin elkarlanean .

Britainia Handitik eta AEBtik kanpo, beste zenbait artistak ere —Sigmar Polke Alemanian, Mimmo Rotella Italian, Niki de Saint Phalle Frantziar edo Miguel Ángel Cárdenas Kolonbian— Poparekin lotutako estiloa

jorratu zuten; beste herrialde batzuetan erreialismo kapitalista edo *Nouveau Réalisme* izena hartu zuen estilo hark zalantzan jartzen zituen konbentzionalismo estetikoak, besteak beste “goi-mailako artea” deritzonaren ustezko originaltasuna.

Sortzaile garaikide batzuek, tartean Jose Dávila eta Lucia Hierrok, kontsumo-kultura kritikatzeko lanen bidez zabaldu dute Pop artearen ondarea, beren jatorria aditzera ematen duten erreferentzia mexikar eta dominikarrak estrategikoki txertatuta. Dávilaren lanak aipamen egiten die Donald Judd artista minimalistaren eskultura pilatuei, baita Rauschenberg eta Warholek beren lanetan erabilitako kartoizko kutxa eta bilgari komertzialei ere, artelanak kontsumitzen diren moduari buruzko eztabaida aztoratzailea piztea helburu. Hierrok, berriz, direna baino askoz handiago irudikatzen ditu Latinoamerikako merkatuetan aurkitu ohi diren salgaiak. Horrela, goratu egiten du objektu arrunten kategoria, eta identitate kulturalarekin, kapitalismoarekin eta klasearekin lotutako gaiak planteatzen ditu.

Luma-bola biguna

Erakusketa Claes Oldenburg eta Coosje van Bruggen *Luma-bola biguna* (*Soft Shuttlecock*, 1995) izeneko lan monumentalak ere badago ikusgai; artista biek 1976 eta 2009 bitartean elkarlanean egindako eskala handiko 40 proiektuetako bat da, eta Guggenheim Bilbao Museoaren lehen erakusketa ere egon zen ikusgai, 1997an. *Luma-bola biguna*, jatorrian, Frank Lloyd Wrightek diseinatutako New Yorkeko Guggenheim Museoko biribilgunerako sortu zuten artistek. Erakusketa prestatzen ari zirela, Kansas Cityko (Missouri) Nelson-Atkins Museum of Art-eko proiektu bat ere garatu zuten Oldenburgek eta Van Bruggenek: plastikoz eta aluminioz egindako badmintoneko lau pilota edo luma-bola, bost metro eta erdi inguruko altuerakoak, eraikinaren alde banatara kokatuta, belar gainean. Horrela, kirol-sare antzeko baten itxura eman zioten eraikinari, eta partida batean lurrera erori izan balira bezala ikusten ziren luma-bolak. New Yorkeko Guggenheimeko instalaziorako ere objektu bera erabili zuten artistek —material bigunez egina—, baina bertsio burlatiagoan. Artelanaren tamaina erraldoiak umorez txikiagotzen du eraikinaren egitura itzela eta, era berean, museoak duen eginkizun instituzionala azpimarratzen du, kultura eta hezkuntzarako ez ezik, aisiarako eta entretenimendurako gunea ere baden heinean.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, Museoak gune didaktikoak, eduki digitalak eta jarduera bereziak diseinatu ditu, erakusketa bakoitzaren osagarri. Hala, tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkio publikoari, ikusgai jarritako lanak balioesten laguntzeko.

Erakusketa honen Didaktikak (babeslea: EDP Fundazioa) hausnarketa bat planteatzen du mugarik gabeko kontsumoa bultzatzen zen garaian artistek materialaz egiten zuten erabilera abiapuntu hartuta, eta ikuspegi gaurkotua eskaintzen du planeta zaintzeak duen garrantziaren kontzientzian oinarrituta.

Hala, elementu interaktibo baten bidez, bisitariak ezagutu ahal izango dute artista batzuek nola erantzun zioten AEBko kontsumo-kulturaren testuinguru historiko eta sozialari 1960ko hamarkadan, eta erakusketako zenbait artista garaikidek Pop artearen gako jakin batzuk nola birformulatu zituzten ere jakin ahal izango dute. Bestetik, Frank Gehryk diseinatutako kartoizko altzariek eta hormako diagramak kontsumo-paradigma berri bat emango dute aditzera, eta ingelesezko “5 R” gogoan hartuz bultzatuko dituzte bisitariak —Refuse (ukatu egin), Reduce (murriztu), Reuse (berrerabili), Repurpose (birmoldatu) eta Recycle (birziklatu)— gure kontsumo-moduek planetarengan duten eraginaz kontzientzia handiagoa pizteko.

Jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (otsailak 14)

Erakusketaren komisario eta New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumeko arte-arduradun Joan Youngek eta Lauren Hinksonen erakusketaren funtsezko alderdiei helduko diete elkarrizketa batean.

Hausnarketa partekatua*

Erakusketaren berriaren edukien gaineko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzten bisitaldiak, erakustaldiarekin lotura duten Museoko profesionalen eskainiak:

- Arte-arduradunaren ikuspegia (otsailak 16): Joan Young eta Lauren Hinkson, Solomon R. Guggenheim Museumeko eta erakusketako komisarioekin.
- Funsezko kontzeptuak (martxoak 20): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntzako Koordinatzailea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Sormen-saioa +18 *Upcycling Moda diseinua* (apirilak 18)

María Escoté moda-diseinatzaileak lehenagoko ehunen eta jantzien berrerabilpenari buruzko hastapen-tailer bat ematen du; kolore ezagunenetan inspiratutako diseinuekin eta 2024ko udaberri-udako joerei begira.

Ibilbidea... (apirilak 19)

María Escoté moda diseinatzaileak erakusketara bisita bat eskainiko du, artea modarako inspirazio gisa ardaztutako begirada batekin, moda-kontsumo iraunkor eta zirkularraren garrantzia ahaztu gabe.

Piano kontzertua *The Colours of Art* Pavel Kolesnikovekin (maiatzak 14)

Pavel Kolesnikov piano-jole errusiarrek kontzertua eskainiko du Museoko Entzungelan, Patricia Sojo musikologoaren aurkezpenarekin. Kontzertuaren ostean piano-jolearen eta musikologoaren arteko topaketa izango da.

Azaleko irudia

Roy Lichtenstein

Grrrrrrrrrr!!, 1965

Olio-pintura eta Magna mihise gainean

172,7 x 142,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, artistaren dohaintza, 1997. 97.4565

© Roy Lichtenstein

© Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketing saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudi-zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera duzue, bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Emandako irudiak *Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialearako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2024ko otsailaren 16tik ekainaren 15era bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati transferitu, ezta datu-base batera eraman ere.
- Irudiak azaletarako erabiltzeak kostua izan dezake, eta alde zuzeneko baimena eskatu beharko zaie obraren jabeari eta copyrightaren titularrari.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

Miguel-Ángel Cárdenas

El Espinal, Kolonbia, 1934–Amsterdam, 2015

Bikote berdea (Green Couple), 1964

Zura, PVC, plastikoa eta metala


200 × 208,9 × 14,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York,

Honako honek emandako funtsekin eskuratua: Latin American Circle 2017.43

Argazkia: Midge Wattles, Solomon R. Guggenheim Foundation, New York.

© Estate of Miguel Ángel Cárdenas



Maurizio Cattelan

Padua, Italia, 1960

Daddy, Daddy, 2008

Polyurethane resin, paint, and steel

1/1 edizioa

37,5 × 97,8 × 87,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Eskaintza anonimoa 2012.3

Argazkia: Kristopher McKay, Solomon R. Guggenheim Foundation, New York.

© Maurizio Cattelan

**Chryssa**

Atenas, 1933–Atenas, 2013

“Horixe da dena” lanerako eraikuntza-azterketa (Construction study for *“That’s All”*), 1969–70

Neoia eta grafitoa inprimaziodun mihise gainean, zur gainean muntatuta

96,5 × 123,2 × 20,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Michael Bennett 80.2720

Argazkia: Allison Chipak. Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Estate of Chryssa

Eskaintza Mihalarias Art, Athens, Grezia.

**Jose Dávila**

Guadalajara, Mexico, 1974

Titulurik gabea, 2017

Kartoizko kutxak eta botila-tapoiak

420,1 × 61 × 47,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Mirella and Dani Levinas 2020.1

Argazkia: David Heald, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Jose Dávila, VEGAP, Bilbao, 2024

**Niki de Saint Phalle**

Neuilly-sur-Seine, Frantzia, 1930–La Jolla, Kalifornia, 2002

Titulurik gabea, 1979

Argizarizko arkatza, akrilikoa eta koloretako arkatza beira-zuntz gainean

67,3 × 125,7 × 62,2 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Susan Morse Hilles Estate 2002.38

Argazkia: Ariel Ione Williams, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Niki Charitable art Foundation, VEGAP, Bilbao, 2024



Jim Dine

Cincinnati, Ohio, 1935

Perlak (Pearls), 1961

Olio-pintura, pintura metalizatua eta gomazko bolak mihise gainean

178,4 × 153,4 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Leon A. Mnuchin 63.1681

Argazkia: Midge Wattles, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Jim Dine, VEGAP, Bilbao, 2024

**Douglas Gordon**

Glasgow, Eskozia, 1966

Bertsio pirata (Empire) [Bootleg (Empire)], 1998

Koloretako bideoa, soinurik gabea, 119 min, 52 s

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, artistaren dohaintza 2004.99

Argazkia: Kristopher McKay, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Studio lost but found, VEGAP, Bilbao, 2024

**Richard Hamilton**

Londres, 1922–Oxford, Erresuma Batua, 2011

Solomon R. Guggenheima (Zuri-beltza) [The Solomon R. Guggenheim (Black and White)], 1965–66

Beira-zuntza eta zelulosa

122 × 122 × 19 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York 67.1859.2

Argazkia: Ariel Ione William, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© R. Hamilton. All rights reserved, VEGAP, Bilbao, 2024

**Lucía Hierro, Lucía Guzman García**ekin elkarlanean

New York, 1987 & San Francisco de Macoris, Dominikar Errepublika, 1958-New York, 2023

Denetarik apur bat (De Todo Un Poco), 2017–21

Poliesterrezko organdia, feltroa eta tinta-zurrustazko inpresioak eskuilatutako ante eta eskuilatutako nylon gainean

152,4 × 170,18 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, honako honek emandako funtsekin

eskuratua: Latin American Circle 2021.35

Argazkia: Midge Wattles, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Lucia Hierro, Bilbao, 2024



Roy Lichtenstein

New York, 1923–New York, 1997

Grrrrrrrrrr!!, 1965

Olio-pintura eta Magna mihise gainean

172,7 × 142,6cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, artistaren dohaintza 97.4565

Argazkia: Midge Wattles, Solomon R. Guggenheim Museum, New York

© Roy Lichtenstein

© Solomon R. Guggenheim Museum, New York

**Josephine Meckseper**

Lilienthal, Mendebaldeko Alemania (gaur egun, Alemania), 1964

Afrikan Spir, 2011

Altzairu eta beirazko bitrina, argi fluoreszenteak eta akrilikozko xafila; txori diseatua;

beirazko eta metalezko bitxiak; tinta-zurrustazko inprimaketa akriliko gainean

muntatua; beira, altzairu herdoilgaitzezko eta kobrezko estropajoak eta lumak

altzairuzko barra gainean; idulki akrilikoa; maniki baten hanka eta galtzerdia; akrilikoa

markodun ispilu gainean; akrilikoa mihise gainean; eta ispilua metalezko idulkiaren gainean

202,2 × 202,6 × 50,8 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Theodor & Isabella Dalenson 2011.35

Argazkia: Ariel Ione Williams, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Josephine Meckseper, VEGAP, Bilbao, 2024

**Claes Oldenburg**

Stockholm, 1929–New York, 2022

Telefono publiko biguna (Soft Pay-Telephone), 1963

Miraguanoz betetako biniloa, margotutako zurezko panel gainean muntatua

118,2 × 48,3 × 22,8 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Ruth & Philip Zierler, hildako

seme maitearen omenez: William S. Zierler 80.2747

Argazkia: Ariel Ione Williams, Solomon R. Guggenheim Museum, New York

© Estate of Claes Oldenburg and Coosje van Bruggen

**Sigmar Polke**

Oels, Silesia Beherea, Ekialdeko Alemania, 1941–Kolonja, Alemania, 2010

Kathreiner, goizean, zakila tente (Kathreiners Morgenlatte), 1969–79

Akrilikoa, zura, baliabide anitzak, collagea markoarekin mihise eta ehun gainean

230 × 310 cm

Guggenheim Bilbao Museoa GBM1997.7

© Sigmar Polke, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao 2024



Robert Rauschenberg

Port Arthur, Texas, 1925–Captiva Island, Florida, 2008

Titulurik gabea, 1963

Olio-pintura, serigrafiatutako tinta, metala eta plastikoa mihise gainean

208,3 × 121,9 × 15,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, honako hauek emandako funtsekin

eskuratua: Elaine & Werner Dannheisser eta The Dannheisser Foundation 82.2912

Argazkia: by Ariel Ione Williams, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© Estate of Robert Rauschenberg New York, VEGAP, Bilbao, 2024

**James Rosenquist**

Grand Forks, Ipar Dakota, 1933–New York, 2017

Flamenko kapsula (Flamingo Capsule), 1970

Olio-pintura mihise gainean eta Mylar aluminioztatua

290 × 701 cm

Guggenheim Bilbao Museoa GBM1997.9

© James Rosenquist Foundation, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2024

**Mimmo Rotella**

Catanzaro, Italia, 1918–Milan, Italia, 2006

Casablanca, 1980

Paper inprimatuzko décollagea, mihise gainean muntatua

89,2 × 174 cm

The Solomon R. Guggenheim Foundation, artistaren dohaintza 2001.40

Argazkia: Sergio Martucci

© Mimmo Rotella, VEGAP, Bilbao, 2024

**Andy Warhol**

Pittsburgh, Pensilvania, 1928–New York, 1987

Hondamendi laranja 5. zk. (*Orange Disaster #5*), 1963

Akrilikoa, serigrafiatutako tinta eta grafitoa mihise gainean

269,2 × 207 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, dohaintza, Harry N. Abrams Family

Collection 74.2118

Argazkia: Kristopher McKay, Solomon R. Guggenheim Museum, New York.

© The Andy Warhol Foundation for the Visual Arts, Inc., VEGAP, Bilbao, 2024

